GARA

ASTIGARRAGA

Sagardoaren bihotzak zorra kitatuko du sagarrarekin eta jaia eskainiko dio

Bigarren Sagar Festaren egitaraua bihar hasi eta datorren igandera bitarte luzatuko da

agardoak maitale asko dauzka. Apes inor gogoratzen den, ordea, sagaz, hain preziatua den edariaren oinizko fruituaz. Astigarragak, sagardoaren hiriburuak, omenaldia egin zion laz lehenengoz eta aurten errepikatu egingo du Sagar Festa. Sagardo katek, sagardoa egiteko prozesuaren erakusketek, eta, nola ez, sagardoz bustitako herri afariek osatuko dute, besteak beste, bihartik igandera bitartekoa. Lehen txotxa gero eta gertuago dago.

nagoia MUJIKA
STIGARRAGA

agardoaren hiriburua sagarran kapital bihurtuko da bihark datorren igandera arte, fruiı horren omeneko jaia antotu baitute bigarrenez. Sagarogileen bultzadaz eta herritaen laguntzaz antolatutako fesık sagardogileentzat oso erezia den sasoiari atea irekio dio, laster hasiko baitira enboraldiko sagarra biltzen. ihar eta etzi sagardoari buruzo katak izango dira Astigarrako Udalean bertan, Xabier amioren azalpenek lagunduta. Larunbatean, hilak 28, sagaroa egiteko prozesua bertatik ertara ezagutzeko parada ango da herriko plazan eta rtaratzen direnek zizarra statzeko aukera izango dute. rratsaldean gastronomia hiaketa jokatuko da, saltsa rdean prestatutako bakailao ena aukeratze aldera, eta, una biribiltzeko, herri afaria ango da pilotalekuan. Bigaenez izango den pintura lehiatak egingo ditu igande goizeak. Nabarmentzeko modukoa iaz lehiaketa honetan irabazle izandako Arantxa Arratibelena dela aurtengo kartelaren marrazkia.

Andoni CANELLADA I ARGAZKI PRESS

Astigarragako alkate Eli Laburuk eta sagardozaleek eman zuten atzo jaiaren berri.

Jaia aurkezteaz gain, aurtengo uztaren berri ere eman zuten sagardogileen atzoko ekitaldian. Azaldu zutenez, aurten Gipuzkoan sei milioi kilo biltzea espero dute, eta, eguraldiaren gorabeherak direla medio, batez ere Goierrin berandu samar etorriko omen da sagarra. Sagardozaleen ordezkari Jose Angel Goñik esan zuenez, negu partean izandako hotz biziek mesede egin zioten arbolari eta udaberriko eguraldi polita ere eskertu zuen loraldiak. Uda sasoia izan da sagar uztarekin gaizkien portatu dena, baina azken asteotako eguraldi epelak okerrak zuzendu, eta, azkenean, uzta majoa izango omen da aurtengoa, azukrez ere ondo datorrena eta sagardo ona emateko modukoa. Txotx denboraldia gerturatzen ari da.